



## **EHU-REN XLII. UDA IKASTAROAK XXXV. EUROPAR IKASTAROAK**

**Donostia/San Sebastián. Miramar jauregia**

**Gaia: Etxebizitza izateko eskubidea eta hori bizitegi-bazterketa larriko edo bizitegi-prekarietateko egoera batzuetara proiektatzea. Botere publikoen esku-hartzea Euskal Autonomia Erkidegoan**

**2023ko uztailak 6-7**

### **Laburpena eta helburuak**

Etxebizitzaren 3/2015 Legeak, ekainaren 18koak, hauxe adierazten du zioen azalpenean: etxebizitza duina izateko eskubidea nahitaezkoa da gizakiarentzat, funtsezko beste eskubide batzuk baldintzatzen baititu; adibidez, enplegua izatekoa, botoa ematekoa, prestazio eta zerbitzu publikoak jasotzekoa, seme-alabak eskolaratzekoa eta beren bizi-garapenean haiei laguntzekoa, kulturaz eta ingurumen egokiaz gozatzekoa, bizipenak senideekin eta lagunekin partekatzekoa, eta beste hainbat ere, itzal handieneko doktrinak eta justizia-auzitegiek berek behin eta berriz nabarmendu dutenez.

Gainera, etxebizitza izateko eskubideak dimentsio etiko bat du eta hori gogoan izan behar da etxebizitza bat duintzat jotzeko orduan, oso garrantzitsua baita honelako arazoak gainditzeko: haurren pobrezia; gizarte-bazterketa belaunaldiz belaunaldi iraunaraztea; edo diskriminazioa nozitzen duten taldeetako izateagatik (gutxiengo etnikoak edo erlijiosoak, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak, e.a.) etxebizitza eskuratzetik ez izatea.

Zenbait arrazoiengatik pertsonak etxebizitza egokirik ez daukatenean, batez ere kasurik larrietan, administrazio publikoek beste bizileku egoki bat eskaintzen lagundu behar dute, bizitoki-larrialdizat har litezkeen egoeretan.

Batzuetan, egoera horiek hipoteka edo alokairua ez ordaintzeagatik gertatzen dira, eta utzarazte judizialera ere irits daitezke muturreko kasuetan.

Euskal administrazioek hainbat programa, ekimen eta erakundearteko hitzarmen aztertu dituzte eragindako pertsonentzat eta beren senideentzat bizitoki-larrialdiko egoera estuenen ondorioak minimizatzeke.



Kezka hori araudian ere gauzatu da, eta gizarte-kalteberatasuna egiaztatu den kasuetan, babes publikoko etxebizitza bat esleitu ahal izan da, salbuespenez.

Arartekoaren ikastaroaren bidez, pertsonak bizi ditzaketen egoera zehatzetan finkatu nahi da arreta. Horretarako, kasurik larrientarako beste bizileku bat eskura izateak dakarren erronka aztertuko da, **etxegabeen egoerak arintzeko politika publikoak ezagutuko dira, eta etxebizitza bat eskuratzeko eta mantentzeko bizitegi-prekarietatea duten pertsonen arazoak eztabaidatuko dira.**

Egoera horiek hiru ikuspuntu hauetatik jorratuko dira: juridikoa, etikoa eta soziala. Euskal botere publikoek esku hartzeko zer aukera dauzkaten hausnartuko da, etxebizitza eskuratzeko arazoak eta etxebizitza publiko gutxi dauden eszenatokian konponbideak emateko.

Orobat, etxebizitza behar duten pertsonak artatzean funtsezko faktoreak antzematera bideratuta dago, batik bat larrialdi egoeretan, gizarte zerbitzuek esku hartuz, aparteko esleipen-prozeduretatik datozen konponbide batzuk aplikatuz, administrazioen arteko harremanen eta koordinazioaren bitartez eta baliabide espezializatueta bideratuz, beste eragile batzuekin eta komunitatearekin berarekin hitz eginez.

Laburbilduz, adituen eta administrazioen nahiz gizarte-erakundeen ordezkarien ekarpenen bitartez, aztertu nahi da zer indargune eta ahulgune dituen egoera horietan etxebizitza-premiak artatzeko dagoen ereduak.

**Norentzat:** ikasleentzat, etxebizitzarekin lotutako sistemetako (soziala, judiziala, e.a.) profesionalentzat, eragindako pertsonen elkarteentzat eta defentsa-erakundeentzat.



## Uztailak 6. Lehen saioa

- 9:15      **Aurkezpena / Jardunaldiaren hasiera**  
EHU  
Manuel Lezertua. Arartekoa.
- 9:45      **I. ponentzia. Abiapuntua: Etxebizitzarako eskubidearen konfigurazio konstituzionala eta Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa aitortzea.**
- Hizlaria: Juli Ponce. Administrazio Zuzenbideko katedraduna Bartzelonako Unibertsitatean.
- 10:15     **II. ponentzia. Nazioarteko ikuspegia: Etxebizitza giza eskubideen nazioarteko Zuzenbidearen ikuspuntutik. Botere publikoek bizitoki-alternatiba bat eman behar dute. Betebehar horren irismena.**
- Hizlaria: Andrei Quintiá. Groningenerako (Herbehereak) Unibertsitateko doktoretza osteko ikertzailea.
- 10:45     **Eztabaida**
- 11:15     **Atsedena**
- 11:45     **Ikus-entzunezko proiektzioa**
- 12:10     **I. mahai-ingurua: Botere publikoek bizitoki-larrialdiko egoeren aurrean esku hartzea Euskal Autonomia Erkidegoan. Aipamen berezia etxea utzarazteko prozedura judizialerako koordinazioari buruz.**
- Bizitoki-larrialdiko egoerak konpontzeko prozeduraren alderdi praktikoak.
    - Hizlaria: Mario Yoldi. Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendaria. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.
  - Kalteberatasun eta larrialdi egoerak.
    - Hizlaria: Rosa García. Gipuzkoako Stop Desahucios.
  - Udal gizarte zerbitzuen eta Etxebizitza Sailaren arteko koordinazioa.
    - Hizlaria: Mila Holgado. Gizarte Ongizate Arloko zuzendaria. Irungo Udala.
  - BJKNren Hitzarmenaren gaineko esperientzia.
    - Hizlaria: Begoña Landaluce Pastora. Durangoko Egikaritze Zerbitzuko zuzendaria.
- 14:00     Saioaren amaiera.



## Uztailak 7. Bigarren saioa

9:00 **III. ponentzia. Hausnartzeko gunea: Ikuspegi etikoa izan behar da etxebizitzak pertsonen (batez ere, talde ahulenen) osoko garapenean duen garrantziaz.**

Hizlaria: Marije Goikoetxea. Giza Eskubideetako doktorea. Etikako irakaslea. Deustuko Unibertsitatea. Laguntza-etikako aholkularia.

9:30 **II. mahai-ingurua: Etxegabeen egoerak arintzeko politika publikoak.**

- Etxegabeen II Euskal Plana.
  - Hizlaria: Lide Amilibia. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako sailburuordea.
- Etxebizitzarekin lotutako bazterketa-egoerei buruzko datuak Euskadin.
  - Hizlaria: Joseba Zalacain. SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko zuzendaria.
- Bizitegi-bazterketari Gipuzkoan ematen zaion erantzunaren gaineko ikuspegia eta proposamena.
  - Hizlaria: Patxi Leturia. Gizarte Inklusiorako eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretarako zerbitziburua. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentua.
- Gasteizko Udaleko gizarte zerbitzuen jarduerak etxebizitza-premiak arintzeko.
  - Hizlaria: Boni Cantero. Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko eta Garapenerako Lankidetzako zuzendaria. Gasteizko Udala.

11:30 **Atsedena**

12:00 **III. mahai-ingurua: Etxebizitza bat eskuratzeko eta mantentzeko bizitegi-prekarietatea duten pertsonen arazoak.**

- Alokabidek garatutako programak.
  - Hizlaria: Patricia Val. Alokabideko zuzendari nagusia. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.
- Udal etxebizitzak esleitzeko programak eta etxegabetze egoeren aurreko jarduerak.
  - Hizlaria: Txema Escolástico. Bilboko Udal Etxebizitzen zuzendariordea. Bilboko Udala.
- Etxebizitza eskuratzeko diskriminazio-egoerei buruzko ikerketak.
  - Hizlaria: Miguel Ruiz Díaz-Reixa. Provivienda elkarte.
- Atzerritarrek etxebizitza lortzeko duten arazoa.
  - Hizlaria: Garazi Montuschi. Harrera Saileko teknikaria. Gipuzkoako Sos Arrazakeria.



- Bizitegi-prekarietateko egoeran dauden pertsonentzako programak.
  - Hizlaria: Joseba Gaya. Euskadiko EAPN (Euskadin pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko Europako Sarea).

13:50 **Amaiera**

Inés Ibáñez de Maeztu. Arartekoaren ondokoa.

14:00 **Saioaren amaiera**